


ttipi-ttapa

1993.eko Azaroak 4

121. zenbakia

dohain banatzen da




**GURE BASERRIETAKO
AZKEN ASTOAK**

EXPOSICION ERAKUSKETA

"TURISMO Y DESARROLLO ECONOMICO"
"TURISMO ETA DESARROILO EKONOMIKOA"

BERTIZ



PARTZUERGO
TURISTIKOA
CONSORCIO
TURISTICO

Azaroaren 2tik 14era Berako Kultur Etxean

Ordutegia arratsaldeko 5etatik 9etara

**Turismo Partzuergoak erakusketa hau ikustera gonbidatu nahi dizue
bereziki ondorengo herriotako biztanle guziori:**

BERA ETA ETXALAR

non - zer

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karnele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea.

Ale honetan parte hartu dute: Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Marta, Mirari, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Ainhoa Mutuberria, Koro Irazoki, Margari, Pello Etxegia, Daniel Martiarena, Txema Urrotz, Patxi Otxandorena, Joseba Azpiroz, J. Igarabide, Pablo Mendiburu, Juana Mari Saizar, Mixel, Jacqueline, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa eta Josetxo Susperregik.

Argitaratzailea: *ttipi-ttapa*.

Laguntzaileak: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea, Goizueta, Leitza eta Berako udalak...

Inprimategia: Gertu Kooperatiba Elkarte (Oñati)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazita-ko erranen eta eritzien erantzunkizunik.

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85

Tirada: 5.600 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa.: 63 11 88

Faxa: 63 12 91

4 AGENDA Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.

7 HONTAZ ETA HARTAZ

8 IRAKURLEAK MINTZO

9/25 HERRIZ HERRI

Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarena, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta... Doneztebeko feriei buruzko gehigarria

26 ERREPORTAIA: «Azken astoak», desagertzen ari dira gure baserrietatik azienda hauek.

Joxemanuel Irigoien

28 ELKARRIZKETA: Lainope Ingurugiro taldea: «Itoizko aferaren inguruan, haxe izan daiteke josi edo urratu egiteko tenorea!».

30 MERKATU TTIKIA



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko laguntza jaso du

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600

Nafarroako ospitalea.....102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia109400

Gurutze Gorria.....226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450805

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943) 464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Doneztebe.....(908)776314

Lesaka.....637404

Elizondo580924

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592255

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzaran515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

Botikak

► **Azaroaren 6-7an,** Lesaka, Narbarte eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Azaroaren 13-14ean,** Etxalar, Sunbilla eta J. Iturralde (Elizondo).

Bestak

► ITUREN

Azaroaren 11tik 14ra Aurtizko bestak (ikus xehetasunak 17. orrialdean).

► DONEZTEBE

Feriak azaroaren 19an. (ikus gehigarria)

Erakusketak

► ELIZONDO

Arizkunenea Kultur Etxean, azaroaren 3tik 13ra, argazki zaharren erakusketa.


Azaroaren 15tik 28ra Gamazadari buruzko erakusketa.

Zinema

► DONEZTEBE

Azaroaren 6-7an 'Instinto básico'. **Azaroaren 13-14ean** 'Sol-dados de juguete'

Bota bertsoa



Iñigo OLAETXEA

Bortzirietako Bertso Eskola

Gaia: Ehiza

Neurria: Semaforoak gorri ta berde...

Guttiren bizimodua eta askoren hobby maitea eta norbaitek dion bezala paregabeko artea, bainan halere ezin ukatu sortu dezakeen kaltea askorentzako ohitura denez ehizatzeraz joatea usoak ez du inoiz izanen adierazten dun pakea.

Garai batean beharra eta gaur egun berriz kirola usoak zenbat sufritzen duen haiei ez zaie axola ehiztariaren jarrera behintzat ezin barkatu inola ta nahi dutena esango dute bainan neretzat da hola naturan alde dagoen oro ehizaren aurka dagola.

Kantaldiak

ELIZONDO

FOLK MUSIKA ZIKLOA

Azaroaren 5ean 'Kandela' taldea. Azaroaren 6an 'Mapache' taldea eta azaroaren 7an 'Solistas de la costa' taldea. Saioak Kasinoan arratsko 8etan.

DONEZTEBE

ROCK KONTZERTUA

Azaroraren 19an, gaueko 10etan, Zuma-rika, Ostikada eta Bizkar Hezurra taldeak.

Deialdiak

LEITZA

HERRI ARTEKO ANAITASUN FESTA

Azaroaren 14ean, Arkupeak elkarteak antolatua. Goizez, meza, txaranga, bertsolariak, herri kirolak eta bazkaria. Arratsaldean, Amalur taldearekin dantza.

Gastronomia

USOA SALTSAN

Osagaiak

4 lagunendako:

4 uso, 3 tipul, 2 urdai azpi xerra, 30 gr. gurina, 2 goilare olio, "Armagnac'a baso erdi bat, gatza, biper beltza, arno xahar botoil bat eta xarpota (anis usaiko



Maixan ELIZALDEk emana SARA

belarra).

Usoak erdizkatu, tipula xe-

hatu eta urdai azpikia puskatu.

Olio eta gurinean erregosiz geroz usoak kendu eta tipula eta urdai azpi pus-kak bota. Usoak berriz ezarri eta Armagnarekin erre. Gazitu, arno xaharra ixuri eta xarpota gehitu. Kokela estali eta su ttikian atxiki oren batez (guti gora behera). Prest dagoelarik ogi xigortuarekin jan.

Baserriko feria

ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 ki-lokoa): 3.000 pzta. **Zerri gizona** (95-100): 120 pzta/kilo **Zerramak**: 75 pzta./kilo bizirik.

BEHIKIA

•Aretze gizenak:

Idixkoak: Pzta/kg. Kanal Extra.....610
1.koa.....590
2.koa.....550

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal

Extra.....630
1.koa.....600
2.koa.....570
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 420 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 460 Pzta./Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 25.000 artean eta idixkoak 35.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 35.000 eta idixkoak 50.000 Pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43
DONEZTEBE

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91

EKAITZA OSTATUA

PUY

Altzate - BERA

11 galdera ilabur



Pili Nabarte

Goizuetako ostalaria eta 4 umeren ama

- Jaingoikoak eman haina haur edo antisorgailuak erabili? Antisorgailuak.
- Gogorra al da gaur egun lau haur hazi eta hezitzea? Bai, nahiko gogorra.
- Zer nolako sentsazioa da bikiak erditzea? Ongi ateratzen bada poza sentitzen duzu.
- Oporrak elurretan ala hondartzan? Hondartzan.
- Oporrak, senarrarekin ala gabe? Senarrarekin.
- Zer edaten da gehien, konbinatuak ala kopak? Kopak.
- Nork edaten du gehien, gazteek ala helduek? Helduek.
- Pattarra edateko ohiturak jarraitzen al du? Ez.
- Festak, inauteriak ala asteburu normal bat? Inauteriak.
- Zer falta da herrian? Gazteentzat dibertsioa eta zaharrentzat tokiren bat.
- Nola ateratzen dituzu tabernatik goizaldeko 'pelmak'? Ateratzeko ongi esanez.

► Tina

Brian Gibson
EEBB-1993

Duela dozena bat urte inguru Anoetako poliki-roldegian Tina Turner ikusteko aukera ederra izan genuen batzuek, jende aunitz ez bait ginen bildu (2.000 inguru). Munduan barna gaur Madonna bezain ezaguna zen, ez ordea Espainia eta Euskal Herrian, bertze gauza aunitz bezala, hamar urteko desfasea izaten bait zen.


Geroztik Euskal Herrian berriz izana da Tina Turner duela urte gutti, baina lehen alditik beherakada na-

barmena izan zuen, nahiz eta jende berri gehienak ez nabaritu. Montai eta efekto aunitzez gehiago.

'Mad Max 3' australiar filmak bultzada handia eman zion Tina Turnerri bigarren etapan, bere temak abesten zituena eta milaka kopia saldu zituena.

Geroztik eta oraindik munduko hit-parade guzietan dago nahiko goiti, oraingo talde gazte hoberenekin exitoak banatuz.

Bere gazte garaiko egoerari buruzko filmadugu hau. Orduan, talde famatua zen 'Ike



Angela Bassetek ezin hobeki errepresentatzen du Tina Turner

and Tina' munduan. Eskandalo ugari izan zen bien arteko harremanetan. Bizi sentimental gogor hau ederki aztertzen du filmak.

Abesti guziak Tina Turner berak abesten ditu,

eta Angela Bassetek Play backean lan egiten du. Halere, bere lehen lanean ezin hobe pertsonifikatzen du rock kantariaren bizi interesgarria.

MARIANO



Ezkontetako
erreportaiak
argazkiak eta
bideoa

Markoak eta moldurak

© 58 01 55 • Santiago 40 ELIZONDO

Eta orain, zure
koloretako argazkiak
ORDU BATEZ
ERREBELATUAK
ditugu



MALDAERREKA S.A.

«La Suiza»

Aseguro
mota
guziak

Bittiria karrika - Tfnoa: 637404 - LESAKA



Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - **BERA**

LEGARRA

• PAPERTEGIA • TABAKOAK •
• LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZU BERRIAK

- ☞ Fax Publikoa
- ☞ Enkuadernazioak
- ☞ Inprenta lanak • fotokopiak
- ☞ EGUNKARI hauek SALGAI

Diario Vasco, Diario de Navarra,
Navarra Hoy, El Mundo, As, Deia,
Diario 16, Egin, Egunkaria, Marca,
El Pais

Legarra 9, © 637030 - LESAKA

‘Turismo eta garapen ekonomikoa’ erakusketa Beran

Bertizko Turismo Partzuergoak antolatua

Astearte honetan, azaroak 2, zabaldu da Berako Kultur Etxean ‘Turismoa eta garapen ekonomikoa’ izeneko erakusketa, Bertizko Turismo Partzuergoak antolatuta. Erakusketa hau, Donezteben eta Elizondon izan ondotik, azaroaren 14a bitarte egonen da zabalik eta bereziki Bera eta Etxalarko bizilagunei zuzen-

tzen zaie.

Lesakan berriz, azaroaren 15tik 28ra egonen da Beti Gazte elkartekegoitzan (Alondigako lehen pisuan).

Bertzalde, eskualdeko zenbait jatetxetan segitzen dute bertako jakien kanpainarekin. Lehenik ehizarekin hasi ziren eta orain barazkiekin.



San Martin hurbiltzen ari dela eta hotzak uste baino lehen harrapatu badigu ere, hasiak dira zenbait lekutan zerri hiltzeak egiten, argazkiko zozaiarrak bezala.

IKA eta AEKren artean 355 ikasle eskualde osoan

Kopuru hauek IKA eta AEKren euskaltegietan urriaren azken astean ziztuzten matrikula datuen arabera dira. Gerta liteke beraz, geroztik han edo hemen norbaitek ize-na emana izatea.

Bertzalde, kopuru horietan, Osasun Zentru eta udaletako funtzionarioak diren ikasleak ere kontuan hartuak daude, Baztanen ezik, bertan administrazio taldeak oraindik osatu gabe bait daude. Aipatu behar da, Leitza inguruan, Basaburuan (24 ikasleri) eta Larraunen (32 ikasleri) ere klaseak ematen dituela Leitzaaldeko IKA euskaltegiak.

Datu hauek, lekuan lekuko aldaketa ttikiekin berdintsuak dira aintzineko urtetakoekin alderatuz gero.

AEK

BAZTAN 79

IKA

BORTZIRIAK 96

Bera	27
Lesaka	31
Igantzi	6
Etxalar	6

LEITZALDEA 85*

Goizueta	21
Leitza	64

MALERREKA 95

Donamaria	7
Doneztebe	59
Narbarte	9
Sunbilla	11
Zubieta	9

* Leitzaaldeko datuetan ez dira kontutan hartu Larraun eta Basaburuako matrikulazioak

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



PORRORIK EZ

Aurtengo udaran udaletxeak lokal bat utzi zigun, denbora pasa egoteko, bilerak egiteko etabar erabiltzen dugularik.

Itxura denez, hainbat zurrumurru eta esamesa sortu dira azken hilabete hauetan, batez ere po-

rroaren ingurukoak, gazte askok bertan erretzen dutela esanez.

Argi eta garbi esan behar dugu hori gezurra dela eta jendea kritikatzegatik ari dela, inork ez baitu ikusi oraindik lokal horren barrenean gertatzen dena. Horregatik, zalantza eta pentsamendu txar

gehiago sor ez dadin, gure lokaleko ateak nahi duenarentzat irekiak daudela adierazten dizuegu. Beraz, herritar guztiak gonbidatuak gelditzen zarete bertara.



Goizuetako Gazte Asanblada

Oharra

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi

duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, erredakzioak bere esku izanen du horretarako eskubidea.

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO BIDAIAK

- ✕ HERRIAK
- ✕ MENDIAK
- ✕ TURISMOA
- ✕ TREKING eta
- BIDAI ALTERNATIBOAK

BIDAI
AGENTZIA
G.A.T. 2.015

ADUNA KALEA, 5
☎ 943 - 615177
☎ 943 - 619489
FAX 943 - 619517
20.300 IRUN

MOLINERO PINTURAK



Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen arabeko prezioetan.

Eztegara 19 - ☎ 63 02 40 BERA



BERA

MAHAI INGURUAK

Eskualdeko Bertsolaritza

Azaroak 4, ortzeguna, Iamotenean, arratsaldeko 7etan

Nafarroako Bertsolaritza

Azaroak 5, ortzirala, Iamotenean, arratsaldeko 7etan

BERTSO JAIALDIA

*J. Lopategi, J. Soroazabal, E. Arozena,
J. Enbeita, M. Arozena eta A. Telletxea*

Gai jartzailea: Mikel Taberna

Azaroak 7, igandea, Kultur Etxean, arratsaldeko 6,30etan



BERAKO UDALA
Euskara Batzordea




Nafarroako
Gobernua



Poliziaren esku dauden bi lesakarren eskubideak errespetatzea eskatu zuen udalak ahobatez

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Urriaren 25eko udalbatzarrean, aintzineko egunean gertatutako atxiloketak ere mintzagai izan ziren. Gertakariari buruzko informazioa eta egindako gestioen berri eman ondotik, HBkoek aurkeztutako mozioa eztabaidatu zen. Lehenengo bi puntuak kontzejal guzien konformidadez onartu ziren: batetik, poliziak hartutako bi lesakarren eskubideak errespetatzea eskatuz eta bertetik, polizia-buruek atxilotuei buruzko informaziorik ez ematea salatuz. Hirugarren puntuan, arazoa moldatzeko negoziazioaren beharra aipatzen zen, eta kasu honetan EA eta HBkoek aldeko botoa eman zuten eta Herrialdekoak abstenitu, eztabaida horretarako toki egokia goak badaudela erranez.



VII. urtez, hiru ikastetxeetako haurrak bildu ziren Altzateko frontoian.

Hilabetearen 15a bitarte aurkeztzen ahal dira Polikiroldegirako gestio proiektuak

Polikiroldegiaren obra akautuxea dagoenez, udalak bandoa zabaltzea erabaki du gestiorako proiektuak aurkezteko. Proiektu globalak izatea interesatzen zaio udalari, instalazioen zainketa kontutuan hartzeaz gain, kirol aktibitateak ere ga-

ratuko dituztenak. Interesatuek hilaren 15a bitarteko epea dute eben proiektuak Herriko Etxean agertzeko. Bertzalde mataderoaren moldaketa finantzatzeko 4 milioi pzt. baino gehiagoko laguntza hartu du udalak Cedernatik.

W ttipi-flash

- ☐ **Laguntza Ofizialeko** etxebizitzak eraikitzeke prozesuan pausu berri bat eman da Udala eta promotoreen artean egindako bileraren ondotik. Oraindik definitu gabe dago, halere, zenbat etxebizitza egingen dira eta hauen ezaugarriak.
- ☐ **Ricardo Baroja** eskolatik tximistorratz erradioaktiboa eta bertze elementu kontaminanteak kentzeko erabakia hartu du udalak.
- ☐ **Su-egurra** nahi duenak izena eman behar du Herriko Etxean. Aurten, Ibardingo karreteran egingen dira loteak, 4. km.an.
- ☐ **Azkenaldiotan** 5 edo 6 etxe eta lantegietan gertatu diren lapurketen berri emanen dio udalak Ruiz de Alegria Gobernuaren delegatuari.



Legia 11 - 63 06 64 BERA

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA



© 631076 • BERA

BOAN TAILERRA



CITROEN Banatzailea

KOTXE BERRIEN

ERAKUSKETA ETA SALMENTA

Herriko Etxeko Plaza - BERA

Errekalde ostatua

Ortizraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA



KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98

BERA

LESAKA

III. Argazki lehiaketa antolatu du Beti Gaztek

Hilaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira lanak

AITOR AROZENA

Beti Gazte elkarteak martxan paratu du argazki lehiaketaren hirugarren edizioa. Argazkien gaia librea izanen da eta txuribeltzean nahiz koloretan aurkez daitezke azaroaren 15a baino lehen elkartearen egoitzan (Beti Gazte, Beheko Plaza 9, Lesaka).

Epaimahaiak hilaren 22an emanen du sarituen berri eta egun horretatik 28ra bitarte, erakusketa burutuko da, presentatutako argazki guztiekin. Herriko Etxeko pleno aretoan. Lehen saria 15.000 pezetakoa da eta bigarrena 10.000koa. Kirol argazki hoberenari ere 15.000 pezetako saria emanen zaio.

Argazkilari bakoitzak edozein tamainuko 3 argazki aurkez dezake gehienez, beti ere 30x40 zentimetroko kartulina baten gainean paratuak.



Aurkeztutako argazki guztiekin erakusketa egingen da azaroaren 22tik 28ra
ARTXIBOA

W ttipi-flash

- **Estitxu Arozenak** eskuratu zuen Goizuetan 'Xalto' saria, Nafarroa eta Iparraldeko 25 urtetik behitiko bertsolariei zuzendutako txapelketa.
- **Gartzelei** buruzko hitzaldia arkupetan egin zen, udalak ez baitzuen pleno aretoa erabiltzeko baimenik eman. Halere, jende aunitz hurbildu zen.
- **Alkaiagako** industrialderako 174.250 m²ko eremua espropiatuko du Nafarroako Gobernuak.

Iñaki Fagoaga eta Patricio Goienetxe atxilotu zituen poliziak

Iñaki Fagoaga eta Patricio Goienetxe lesakarrak atxilotu zituen poliziak Beran urriaren 24ean. Beraien etxeak erregistratu zituzten eta 'Lege Antiterrorista'pean zeudela erranzieten senideei. Bera eta Iruñako komisaldegietatik pasa ondotik Madrilera eraman zituzten,

Iparraldetik Hegoaldera armak eta lehergailuak pasatzea leporatuz. Biak ere osasun arazoak dituztela erran dute familiakoek.

Atxiloketa hauen kontra hainbat mobilizazio egin dira. Joan den astean egunero asanblada eta manifestazioak egin ziren

eta Audientzia Nazionalera autobusa beterik joan zen. Astearteko pleno bereziak, atxiloketa hau salatu zuen eta 'bi herritar hauen giza eskubideak errespetatuak izatea' eskatu zen. Familien gastuak ez ditu bere gain hartuko udalak, PNVk honen kontra botatu baitzuen.

KOSKILLA
OSTATUA

*Larunbatetan
mus txapelketak
sari ederrekin*

Zarandia 4 - LESAKA

SASKI
OSTATUA
LESAKA

XATURETXEA
FONDA

Tfnua.: 63 70 27 LESAKA

LORA DENDA
TXIRULA
Bitirio LESAKA
627542

bitxikeriak • opariak • eskulangintza

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA

Tfnua.: 63 71 27 LESAKA

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA

Herria edertzeko estudioa egiteaz interesatua dago udala

Hastekoz, proiektua nola gauzatu eta zenbat kostako den jakin nahi du

PELLO eta ALBERTO

Bertizko Turismo Par-tzuergoak emandako ini-ziatibaren ondorioz, udalak herriaedertzeko estudio bat eskatu dio Chocarro arki-tektuari; momentuz zera bakarrik, ea zeri begiratzuz egin beharko litzatekeen edertze proiektua eta zenbateko kostua izanen lukeen. Dena den, EAKo zinegotziak estudioa arki-tektu gehiagori eskatzearen alde agertu dira.

Latsabean kamioientzako aparkalekua

'Rayta' elkarteari bai-mena ukatu egin dio Na-farroako Gobernuak, erre-pide edo karreteraren



hobetze lanetarako oztopo izan daitekeelako. Hala ere, Garraio Departamenduak onartuz gero, onetsiko

Ez da oraingoa, hilobitarako lurra eskatu eta udalak ezin emana. Nitxoak eginen ote dituzten pentsatzen ari dira, lurra erosteko zailtasunagatik. Ez litzateke alferrikakoa izanen Iparraldeko herrietara begiratzea bertako hilerrieta-tik ikasteko; Saran, hemengo egoera berdina zela eta, hilarri borobilez apaindutako hilerri gustagarria egin dute.

omen du aparkalekua. Udalak, orain, Garraio de-partamenduak nola ikusten duen galdetuz idatzi dio.

W ttipi-flash

- ☐ **Guraso** elkartearen Junta berrirako, Urritiko Asun Ozkariz eta Iriberriko M^a Cruz Andueza-ren ordeaz, Gure Itzalako Rosa Altzugarai eta Etxeberriko M^a Asun Sanzberro aukeratu di-tuzte.
- ☐ **Haritz amerikanoa** gaitzak jo duela eta, gai-tzari buruzko xeheta-sunak eskatu ditio uda-lak mendi zeladoreari.
- ☐ **Larraburuako II.** Mus txapelketa urriaren azken egunean hasi da. Aben-duaren erdira arte, 16 bikotek parte hartuko dute.

EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia

Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

BEREAU jatetxea

Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 637382 - LESAKA



EROSLE LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena zugandik hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264



KATTU

OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR



GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

IGANTZI

4 irakasle eta 33 haurrekin abiatu zen aurtengo ikasturtea


Helduentzako gimnasia klaseak ere hasi dira

OSKAR TXOPERENA

Udazken giroan sarturik gaudenez ia ia eguneroak egin ditugu gaztain jatea, arto biltzeak, eta nola ez, inguruko ferietarako bidaia: Elizondo, Doneztebe, Lesaka, etabar. Abiatutzat ematen ahal dugu baita eskolako ikasturtea ere 33 haurrekin, joan den urteko haur kopuru berarekin.

Eskolako bilera

Urriaren 26an izandako bilerari eginen diogu tartea. Irakasleez aparte, haur guztienak ez, baina guraso mordoxka bildu zen bertan. Ikasturteko lehendabizikoa izanik, bilera informatiboa izan zen gehien



Eskolako haurrak gimnasia orduan

Argazkia: OSKAR

bat. Eskolako ordutegi eta arau edo norma berriak jorratu ziren hasieran, ondorengo heldu den urtean Bortzirietan paratu nahi den sistema berriaz solas egin

zelarik. Aste honetan ziren egitekoak irratsaioak eskolan, baina bertako zenbait arazo direla eta, urtarilerara arte gibelu behar izan dituzte.

Udal batzarra

Joan den asteen izan zen hilabeteroko udal-batzarra. Zenbait gai arrunten artean hiru dira aipagarrienak: herritar bati bere ikuiluak herri barrenean botatzen duen usaia gutunak bidalitako gutuna, Irisarriko bidean paratu nahi izan den atakaz erabakitakoa eta kruzertik herrira kunetak moldatzeko eskatu den aurrekontua.

Gimnasia klaseak hasi dira

Aipatu azkenik gimnasia klaseak hasi direla iaz bezala. Astelehene eta asteazkenetan izanen dira 8etan. Oraindik baduzue denbora.

ETXEGARAI BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta
banakakoak
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

GRUPO ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

ORDOKI ALTZARIAK

Estilo guztietako mogleak

ERAKUSKETAK:

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27

Tfnoa: 637034 - LESAKA

Larunbat
arratsaldetan
zabalik

KOXXKONTA



Sagardoa
botiletan
salgai

Deitu
erreserbak
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

Karreteraren moldatze lanak aintzinduak daude

Ehiztari gehienak, bertzalde, Bagatxar eta Ekaitzako bordetan daude egun pasa

MARTA ITURRIA

Dagoeneko lehenbiko brea estalkia emana diote eta bigarrenarekin ere abudo akautzea espero da. Bitarte honetan, holako obratan normalak diren molestiak sufritzea tokatzen zaio kotxez dabilenari; aunitan pasabidea emateko esperoan egon behar eta bertzenaz, lehengo aldi hortan bezala, hainbat buelta eman behar pistatan barna obrakoek karretera itxia zutelako: Egun batean Bordalarrean barna, hurrengoan Lesakan barna lehenik eta ondotik Eguzkialdean barna buelta berriz bide berrira.



Ehiztariak ez dabilta nahi bezain gustora, oraindik uso gutti xamar harrapatu dutela eta
Arg.: Joxemanuel

Ehiztarien kontuak

Hilabete bat exkax izanen da ehizeko sasoiak ideki zutela eta badirudi ehiztariak ez daudela batere

kontent ehizatu dutenarekin. Alde batetik eguraldi txarra dela, bertzetik usoak altuegi heldu direla, bertzetik ez direla heldu.

Dena dela, urtero beza-

la, batzuk Bagatxarrera eta bertzeak Ekaitzako txabolelara joanak dira egun pasa. Lehengo hortan guardiazibilen bisita ere izan omen zuten Bagatxarreko bordan. Halere, erran digutenez, galdera batzuk egin ondotik joan omen ziren.

Bukatzeke, ehiztariak ez diren kezkak ere azaldu beha: ea ehiztariak garbi jokatzeko duten bakarrik usoak tiro eginez eta ez hegaka dabilen guziari, eta honekin batera, ea ikasten duten mendia garbi uzten, uso-sasoiaren hasieran zegoen bezala utziz mendia sasoi hondarrean. Eskertzekoa izanen da.

TXOKOA OSTATUA

- X Eguneko menua
 - X Asteburutan, kaxuelak eta karta
 - X Gosari, bazkari eta afariak aintzinetik eskatuta
 - X Pintxoan espezialduak X Gazte giroa
- Tfnoa: 630286, Altzate • **BERA**

SAROBEOkindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - **BERA**

Zati honek **2.443 Pta.** balio du
2.443 Pta : 5.600 errebista = 0,43 Pta.
errebista bakoitzeko

JOSETXO SUSPERREGI ETXEPETELEKUK,

Maldaerreka SAko gerenteak eta Iruñeako **OCASO SA** aseguru agentziako subagenteak, **'MULTIRIESGO FAMILIAR'** aseguruaren aurkezpena jakinarazten die Bortzirietako biztanleei.

Horretarako, Iruñetik profesional talde bat etorriko da, eta zuen etxean bertan **'MULTIRIESGO FAMILIAR'** aseguruaren ezagutzera emanen dizue.

Agur bero bat.

SUNBILLA

Sunbildarrak bikain txirrindulari eskoletako probetan

Iker Mariezkurrena eta Mikel Ibarra txapeldunak, bakoitza bere mailan

IXABEL eta JOSUNE

Denboraldi honetan Sunbillako zazpi txirrindulari jotake ibili dira Baztan-Bidasoa, Leitzaran eta Malerreka herrietan barna: Aritz Fernandez, Pablo eta Jon Maritxalar, Iker Mariezkurrena, Garikoitz Arrieta, Jose Ramon Sanzberro eta Mikel Ibarra.

Aurtengo hamar probak sei herrietan burutu dira: Leitza bi, Lesakan bi, Beran hiru, Elizondon, Donezteben eta Sunbillan. Itzuli bakoitzean bi modalitate jokatzeko dira, 'Ginkana' eta 'En linea'. Bakoitzak bere puntuazioa du eta puntu gehien lortzen



Zazpi Sunbildar ibili dira aurtengo txirrindulari probetan

duen txirrindularia da txapelduna. Aurtengo Iker Mariezkurrena alebiren lehen urtean eta Mikel Ibarra, alebiren bigarren urtean izan dira txapeldunak. Bertalde, Iruñean Nafarroako txirrindulari guztientzat egiten den bertze proba bat irabazi zuen Iker Mariezkurrenak bere mailan. Ea datorren urtean bertze gazte mordoak ateratzen den gure herritik.

roako txirrindulari guztientzat egiten den bertze proba bat irabazi zuen Iker Mariezkurrenak bere mailan. Ea datorren urtean bertze gazte mordoak ateratzen den gure herritik.

Bertsolariak eta mimoak

Urriaren 16a herriko jendearentzat egun berezia izan zen. Alde batetik, arratsaldeko 5etan Peter Roberts-ek bere saioa eskeini zuen, eta erran beharra dago adin guztietako eta bertze herrietako jendea agertu zela. Bertze aldetik, bertso afarian 75 lagun elkartziren Ulibeltzak elkartean. Afalondoko giro goxoan Mañukortan, Lizaso eta Murua bertsolariak saio polita eskeini zuten eta jendeak nahiko irri egin zuen.

Bortz orduz mahaian egon arren, jendea irudituta zegoen saioa.

JOSE INAZIO



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

Zati honek **2.443 Pta.** balio du
2.443 Pta : 5.600 errebista = 0,43 Pta.
errebista bakoitzeko



Ameztiak karrika z/g
Tlf. 450163 • DONEZTEBE

Lurrindenda
Oparidenda
Apaindegia

AZKEN NOBEDADEAK:

- LANCASTERen Skin Therapy: Larri-azaleko kosmetikan azken orduko nobedadea eta oxigenoaz baliatuz.
- Parfums JOOP!: Alemanian gehien saltzen dena.
- INTEGRAREN kosmetika: prezio eta kalitatearen arteko erlazio hoberena.
- Udazken eta negurako azken kolezioak pañuelo, bolto, bitxitegi, estalki, euritako... eta sasoi honetako LANCASTERen kolore berriak.

APAINDEGIAN:

- Tratamendu berriak (zelulitis, barizak...) Bouchet doktorearekin batera.
- Hileak kentzeko sistema berria.

Erosketa bakoitzeko opari bat dugu zuretzat!!

Udal liburutegia berehala idekiko da


Udalak bertzalde, Herriko Etxerako lanak egiten zuen arkitektoaren dimisioa eskatuko du

TXEMA ALDABE

Oraindik liburutegia idekitzeko eguna zehaztu ez bada ere, gainerako guzia bideratua dago. Liburuzain lanpostua, sortzez Lizarrakoa den Marga Erdozainek beteko du frogak gainditu ondotik. Liburuak, Nafarroako Gobernuak paratu ditu eta oraingoz 2.000 liburu ekarriak dira. Ordutegia, astelehenetik ortziralerara 6etatik 8etara izanen da, Leku-Eder zinemaren goikaldean egonen den gelan.



Marga Erdozain liburuzaina



Musika eskolako txistu urakaslea nor izanen den erabaki gabe dago

Arkitektoaren dimisioa

Udalerako lan egiten duen Javier Sarobe arkitektoaren dimisioaz solastu zen azken plenoan. Zazpi udalkideetatik seik onartu zuten alkatea arkitektoarekin egotea eta bere dimisioa bideratzea. Udal eginbeharrak eta batez ere, Alondiga zenaren eraikuntza berrian izandako hutsuneak bulkatu du Udala erabaki hau hartzera.

Musika eskola martxan

Irakasle izateko deialdian euskararen tituloa zutenak bi bertzerik ez izan, udalak iaz aritutako irakasleak hartzea erabaki zuen. Hauek dira: Cristina Unsion, Miren Irurtzun, Maite Sancho, Javier Igoa eta Eduardo Arbuniés. Txistua nork emanen duen erabaki gabe dago, aurkeztu zirenek ez bait dituzte probak gainditu.

W ttipi-flash

- ❑ **Zumarika** Doneztebe-ko rock taldea, Ostikada Oreretakoa eta Bizkar Hezurra gasteiztarrek joko dute feria egunean gaueko 10etan.
- ❑ **257.600** pezeta (200 pzta biztanleko) ordaindu dio udalak Bertizko Partzuergoari, aurtengo kuotari dagokionez.
- ❑ **Frontoiaren** zola penagarri dagoelakoz, pilotatan gastu haundia dutela eta keju agertu da Male-rrekako Pilota eskola. Hori dela eta udalak aurrekontuak eskatuak ditu.
- ❑ **Odriozola** jatetxea zena berehala moldatzen hasiko dira.
- ❑ **Askin Arrondo** paraje-ko garbitze lanak Fco. Bertiz sunbildarrak egiten ditu 92.000 pzta hektareako kobratuz.

LANCASTER

P A R I S

LANCASTERek SKIN THERAPY sistemaren bitartez kosmetikaren mundua arras berritu du:

oxigenoarekin zimurren marka
%40an tikitzen du

eta %10ean zimurren kopurua.

Zatoz eta probazazu dohain
zure LANCASTER dendan



Amezitia karrika z/g • 450163 • DONEZTEBE

ZURE OSASUNA ETA EDERTASUNAREN ZERBITZURA

Osasun fisikoa eta sikikoa
tratamendu naturalekin


...

Bizkarrezurreko arazoak

...

Zelulitisa eta loditasunaren
kontrako tratamendua

...



Jean Paul Bouchet
Doktorea

☎ 45 07 08 • DONAMARIAKO BENTA

LEGASA

Udazkenaren erdian udari errepasoa eginez

DANIEL MARTIRENA

Udako errepaso bat egitekotan, aipatu beharko genuke besten arrakasta. Lehen egunean denborak lagundu ez bazuen ere, larunbaterako jada etsi zuen, eta *Urtz* taldearen kontzertua zela eta, jendetza majoa hurbildu zen.


Zikirojatean berriz, giro ezin aproposagoa izandu zen, bertan, Lizaso eta Egaña bertsolariak egon zirelarik.

Bertzalde, eta baita udan ere, herriak Don Tiburtzio apeza omendu zuen, herrian 50 urte eramateagatik.

Lotea eskatzeko epea zabalik

Udalak egur lotea eskatzeko epea luzatu du. Honetarako, nahi duen guztiak Nafarroako Aurrezki Kutxan 2.000 pzta sartu beharko ditu. Bitartean, gaztainak biltzen has gaitezke.

*Eguraldiak
lagundu ez
bazuen ere
jendetza
majoa
hurbildu zen
bestetako
larunbatean*



TABERNA

ETXEA

EMAKUME, GIZON ETA HAURRENDAKO ARROPAK
GORTINAK ETA KARRILAK

Merkatarien karrika 12 • & 45 00 07 • **DONEZTEBE**



BULEGORAKO MOBLEAK ETA MAKINAK

Soroxarta Pabeloiak 3-A, Anaka Auzoa

Tfnoa: 943 - 61 02 22 - 61 44 34

Fax. 943 - 61 44 34

20300 IRUN

- r Moble ekonomikoenetatik hasita 'standing' altuenekoak bitarte.
- r Fotokopiagailuak, erregistratzaileak, telefax eta bulegoko edozein makina.
- r Gure eskeintza **sofa eta etxebizitzarako konplementoekin** zabaltzen dugu.
- r Erakusketa zabala.
- Esleriak berehala serbitzen ditugu.
- r Parking pribatua daukagu.

Aurtitzen San Martinak azaroaren 11tik 14ra

Larunbatean rock kontzertua eta gaupasa izanen dira

IBAN ISASI

San Martin egunean, **ortzeguna**, goizez meza nagusia eta pilota partiduak izanen dira; arratsaldean haur jokoak eta dantzaldia Jose Angel akordiolariarekin. **Ortziral** eguerdian herri kirolak, arratsaldean dantzaldia Jose Angelekin eta gauez Trakets taldearekin. **Larunbat** eguerdian mus txapelketa eta arratsaldean herriko trikitilari eta dantzarien saioa. Gau partean rock kontzertua 'Nahi ta nahi ez' eta 'Indar



berri' taldeekin eta segidan gaupasa 'Iruña Band' taldearekin. **Igande** eguerdian pilota partiduak,

arratsaldeko dantzaldia Iruña Band taldearekin eta gauekoa Jose Angelekin.

Herri bazkaria ez da

egitarauaren barnean sartua. Azkenean azaroaren 20an auzo-afari bat egitea erabaki dute antolatzaileek.

Errepidearen moldaketa

Doneztebetik Zubietarainoko errepide edo karretera puskan bortz kilometro moldatzen hasi dira. Honela Iturenen burutuko diren lanen artean kuneta moldaketa, ballen berritze eta jartzea eta azkeneko Iturengo desagutegia plubialen bideratzea errekaraino egiteko probetxatuko dira lan hauek.

ZUBIETA

Giro ederra, urriaren 16ko rock jaialdian

Nafarroa Oinezera joateko ez zen autobusik antolatu

AINHOA MUTUBERRIA

Urriaren 16an jaia egin zen, Pottoka, Balerdi Balerdi, Los Dinosaurios taldeekin. Musikak pentsatu baino gehiago iraun zuen eta estalpean taberna bat jarri zenez goizeko 8ak arte egon zen giroa. Herria betea zegoen eta gau horretan tabernak negozioa egin zuten. Estalpean atera zen diruarekin beste talde bat ekarriko dute. Lehenbait-lehen izan beharko du, eguraldia hozten ari delako eta berehalaxe ezin izanen delakoz kalean egon.



□ **Altsasura** joateko ez zen deus antolatu aurten. Iaz jendea prest zegoen

mugitzeko baina aurten ez da inor arduratu lan hortaz. Bertze herri batzutura joan

izan behar genuen autobusa hartzeko edo lagunekin autotan joateko. Herria hutsa gelditu zen, mundu guztia Nafarroa Oinezera joan zelako eta ostalua ere itxi zuten. Hortaz, jende guztia bere etxetan egon zen, kanpoan hotza egiten zuelako.

□ **Elutsa** elkarteak azkenean bilera egin zuen, gauzak egiten hasteko. Ea jendea animatzen den talde hau aurrera eramaten. Oraingoan, urriaren 30erako Valderejorako bidaia antolatu zuten.

GOIZUETA

Juanita San Miguel: herriko emakume ehiztaria

Duela hogeit hamar urte inguru atera zuen lizentzia

ESTEBAN AROZENA


Ez dakigu beste tokitan zenbatekoa den emakumeen portzentaia ehiztarien artean, baina hemen behintzat garbi daukagu hori: Juanita San Miguel da ehundaka gizonen artean herriko emakume ehiztari bakarra.

Juanitaren zaletasun hau ez da 'modernismo' bat. Ez da ere feministen borrokaren beste atal bat. Udaltxan lan egiten duen administrari honek duela 20 urte inguru atera zuen lizentzia, baina oso gazte zenean hamaika ibilaldi egina omen da bere aita zenarekin orduan hain ugariak ziren erbien atzetik.

Orain usotan ibiltzen

omen da baina ez gehiegi. *"Iaz ez nintzen atere baina duela bi urte uso bat botanuen. Aurtengoa ere ia hutsen joan zait, denborafalta, guardiazibilen oztopoak*

etabar...". Esan behar da, ehiztari izateaz gain ehiztarien elkartearen ere lan egin izan duela Juanitak, lau urtez elkarte horren idazkaria izana baita.



Leitza aldeko karreteran hiru kurba zabaldu dituzte eta gauza bera egitea espero da Hernani aldeko karreteran.

Kurben zabaltzea

Iberoko trintxera bezela ezagutzen den kurbaren itxura ederki aldatu da azken egunotan. Leitzeko errepi-dean hiru bihurgune zabaldu dira eta, diruak agortzen ez badira behintzat, Hernani aldera beste hirurekin gauza bera egingen da.

Zergak ordaintzeko epea zabalik

Urriaren 15etik abenduaren 15a arte zabalik dago udal kontribuzioak 'borondatez' ordaintzeko epea. Egun hauek igarotakoan, ordaindu gabekoei agentzia ejekutiboak kobratuko omen dizkie zerga hauek, baina hasierako kopuruari %20ko erreka geroa ezarritik.

ARESO

Herritarren borondatea eskatzen da erlojua eta eliz-dorrea moldatzeko

JUANA M^a SAIZAR

Aspalditik elizako erlojua eta tximistorratza hondatuak daude, eta orain, udalak konpontzeko ardura hartu du. Erlojua martxan jartzeko diru zerbait emanen omen du, baina aurrekontua nahiko garestia denez (700.000 pzt), herritarrei borondatea eskatzen zaie. Harri batzuk ere erori ziren eliz-dorretik eta hori



konpontzeko ere dirulaguntza gehiago behar da. Orain

arte eliza beharrean suertatu denean, beti erantzun ona

W ttipi-flash

- ☐ **Basauntz eta basurde** asko ikusi omen dituzte ehiztariak uso ehizean daudenean. Basurde bat ere hil dute.
- ☐ **Ume txikiak** eskurtzioan joan ziren Bertizera kurtso hasieran.

izan da aresoarren partetik. Orain ere halaxe espero da.

Azaroaren 14ean, herri arteko anaitasunaren pesta

Arkupeak elkarteak antolatua, ETBk zuzenean eskeiniko du

JOSEBA AZPIROZ

Leitzan ospatuko da aurten, urtero Arkupeak elkar-teak ospatzen duen Anaitasunaren pesta. Aurten, Leitzako udala, Nafarroako Gobernua eta ETBren laguntza izango du. Goizeko 10,30etan hasiko da ailegatzeko jendea, Zugarramurdi, Irun eta Goizuetatik abiatuko diren 10 edo 12 autobusetan eta segituan, ongi etorria emateko txaranga arituko da. 11etan meza izango da, bertan koraak, txistulariek eta bertsolariek (Azpillaga eta Narbaiza) parte hartuko dutelarik. Ondoren eta elizan bertan, Nikolas Buldain jaunari eta Sor Franciscari omenaldia egingo zaie. Horren ondoren ekitaldiak Amazabal pilotalekuan izango dira. 12,30etan Arkupeak elkar-teko bazkideentzat sarrera irekiko da eta ondoren, lekuri gelditzen bada, beste edozein sartu ahal izango da.

Iñaki Perurenak esku batekin duen marka hausten saiatuko da; Zelaiek berriz bi saio egingo ditu, bat 100 kiloko harriarekin eta bes-



Hau da udalak erositako Renault Space RN 2.2 markako anbulantzia, 12 boluntarioekin ematen den zerbitzurako. JOSEBA

tea 150 kilokoarekin. Lesio bat dela medio, Migeltxo Saralegik ez du parte hartuko. Aizkoran berriz, Mingedia eta Larretxea arituko dira, lehendabizi enborbana moztuko dutelarik eta ondoren beste seina.

Dantzariak eta txaranga izango dira eta Lasarte bertsolariari oparitxo bat eskainiko zaio omenaldi gisa. Ekitaldia ETBk zuzenean emango du. Ondoren bazkaria izango da eta 7,30ak arte nahiko dantza egiteko aukera Amalur musika taldearekin. Bazkarira inguruko alkateak eta Ricardo de Leon, Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate

sailako kontseilaria gonbidatuak dira. Txartelak hartzeko epea azaroaren 1etik 7ko eguerdia bitarte izango da bazkideentzat eta gainerakoentzat 7tik 9a bitarte, 3.000 pezetatan.



Iñaki Perurenak esku batekin duen marka hausten saiatuko da ARTXIBOA

W ttipi-flash

- ❑ **Azaroaren 30a** bitarte egin behar da abereen aurkezpena (katasstroa) udaletxean.
- ❑ **Urriaren 22an** egindako batzarrean, honako obra hauek tasarik ez ordaintzea onartu zuen Udalak (tasa aurrekontuaren % 2a izaten da):
- Teilatua berritzea, estruktura aldaketak ezik, hau da teila eta lata berriak jartzea.
- Kanpoko paretak luzitu eta pintatzea (pintura zaharra kentzeko lanengatik ordaindu beharko da).
- Balkoien konponketa.

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

BERA ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305



GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32 • Tfnoa: 510086 • LEITZA

BAZTAN

Eskeletan moldaketak egiteko laguntza deia luzatuko du Udalak

Feria egunean, bertzalde, alimeleko jendetza hurbildu zen Elizondora

JOSEBA IGARABIDE

Nafarroako Gobernuak ematen dituen dirulaguntzak probexteko asmoz, ikaste-txeetako moldaketa eskariak luzatu dizkio udalak. Bertzeak bertze, Irurita-Baigorriko eskolako kalefakzioan moldaketak egin; hobekuntzak Parkeko eskolan; areto bana egokitu Almandozko eta Zigako eskolan bertan klaseak emateko; konzentrazioko teilatu, fatxada, persianak eta patioaren moldatzea eta ikastolako patioa egokitzea izanen dira udalak diruz lagundu nahi dituen lanak.

Feria jendetsuak

Ortziraleko eguraldi ederra probextuz izugarri-zko jendetza hurbildu zen Elizondora Urriko feriara. Ez bakarrik jendea, feriantek xoko guztietan etaazienda pilo bat agertu zen eta batez ere zaldiak, sekulan baino gehiago.



Ikastolako patioa egokitu nahi da

Artxiboa

ETBko errepikagailuetarat argi-indarra hartzeko akordioa sinatu du udalak

ETBko errepikagailuetarat argi-indarra sartzeko Iberdrola enpresarekin akordioa sinatu du udalak. Honen arabera, Arraiozen 299.875 pezeta, Elizondon 184.276 pezeta eta Iruritan 834.440 pezetako kostoa izanen dute lan hauek.

□ **Erratzuko** Baztan Camping-ak bultzatuta bi

piztina egingen dira. Bata haundia edo konpetiziokoa eta bertzea haurrak plitiplasta ibiltzeko.

□ Euskaldunon **Egun-karian** 11.500 pezetako iragarkia jartzea onartu du Baztango udalak, egunkari honen hirugarren urteurrena ospatzu aterako den ale berezia dela eta.

W ttipi-flash

□ **Javier Iturralde** Union Baztanesako zinegotziak bere kargoa utzi du 'arrazoi pertsonalengatik'. Bere postua, Iruritako Antonio Irigoien nekazariak beteko du.

□ **79 lagun** matrikulatu dira Baztango AEKk ematen dituen euskara ikastaroetan. Hauetatik 36 Euskalduntzen mailan daude, 10 Alfabetatzen, 20 EGA ikastaroetan eta 13 guraso taldeetan. Administrazioaren euskalduntze taldeak berriz, oraindik osatu gabe daude.

□ **Dos Rombos** rock taldekoei baimena eman diete Elbeteko lehengo eskola azpian entsaioak egiteko.

□ **'Gaztanberaren Kofradia'** sortzeko, azaroaren 13an arratseko 8etan batzar bat egingen da Arizkunenea Kultur Etxean.

ERLOJU eta BITXI DENDA



ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

ESKULANETARAKO MATERIALAK
Negurako BEROKIAK eta ARROPA

BAZTAN HARANA INSTITUTUA

Tabernaren esplotazioa

Lekarozko 'Baztan Harana' institutuko tabernaren esplotazioa emateko konkurtsa ireki da. Azaroaren 10a baino lehen parte hartu nahi dutenek dokumentazioa eskatu beharko dute 580175 telefonoan.

Oronozko kanposantu berritua bedekinkatu zen

Laister kontsultorio berria egingen da mediku etxearen ondoan


ORONOS-MUGAIRI

Domisaindu eguneko biharamonean, azaroak 2, eman zitzaion bedekinkazioa Oronozko kanposantu berriari. Azken hilabeteotan lanean aritu ondotik, 29 panteoi eta 30 partzela berri egin dira.

Mezaren ondotik hameketakoa izan zuten Herriko Etxeko sotoan egindako batzar toki berrian. Hemen-dik aintzineria, hameketakoz gain bertze bilerak ere bertan egingen direla aipatu digu Florentino Goñi, Oronozko alkateak.

Halere ez omen dira hauek Oronoz-Mugairin egindako lan bakarrak: "Azera berriak egin dira,

«Oronozko kontsultorio berriaren aurrekontua 9 milioi pezeta ingurukoa izanen da" Florentino Goñi alkatearen erranetan»
Arg.: KARMELE



losa eta harriekin eta bide-nabar, iturri bat ere egin da. Medikuetxearen ondoan kontsultorioa egiteko su-

basta atera dugu eta abudo xamar egingen da, 9 milioi pezeta inguruko aurrekontuarekin" dio alkateak.

W ttipi-flash

- ☐ **Almandozko** elizako dorrean zigüña edo zikoina bikote bat egon da bizpahiru egunez. Erran beharrik ez da honek izugarrizko ikusmina sortu duela herrian, ez baita inguru honetan maiz ikusten den kontua.
- ☐ **Lekarozko** 'Baztan Harana' Institutoko ostatuaren esplotazioa emateko konkurtsoa ireki da. Parte hartu nahi duten guztiak azaroaren 10a (asteazkena) baino lehen dokumentazioa eskatu behar dute honako telefono honetan: 580175.

SOULE

Gurutze eta biliarriak

© 45 30 38 ARIZKUN
© 12 35 72 IRUÑA

ARROPA DENDA



CERVANTES HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

M^{re} Dolores Mirana TOPOGRAFIA NEURKETAK • PLANOAK



Lur neurketak
Luberriak

Plantazioak, etab.

Santiago 68, 3. Esk. 580143 • ELIZONDO



ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO
Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN
DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

Jar zaitez esku onetan!

Gure zentroa Metodologia Estetikoan akreditaturik dago.
Dermosteticista batez gidatua eta Medikua Espezialista batez kontrolatua, zure arazoak moldatzeko tratamendu pertsonalizatu bati esker.
Gainera Hidromasai Bañera, Sauna, Solariuma, Makilaia eta ilea kentzeko sistemak (elektrikoa, argizari beroa eta argizari epela zainendako espeziala) zuretzako.



Beatriz

Lurrindenda eta Apaindegia
© 58 02 83 • Santiago 53 • ELIZONDO



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

SARA

29 bikotek parte hartzen dute pala lehiaketan


Bertzalde, eskubaloizelaia eginen da errebote eta kirol aterpearen artean

MIXEL ETA JACQUELINE

Serge Bats eta Philippe Garbiso, bi gazteeri esker Pala antxa lehiaketa hau hasi zen buruilararen erditsutan. Hogoitabederatzi bikotek parte hartzen dute hiru maila ezberdinetan. Finalak ez dira oraino jokatuak, seguraski ondoko *ttipi-ttapan* jakin araziko dugu nor diren xapeldunak.

Eskubaloizelaia

Sarako eskubaloizelaia hori errebote eta kirol aterpearen artean beharra da. Zola belar sintetikoarekin estaliko dute eta neurrien arabera partido haundiak jokatzen ahalko dira. Dударik gabe 'Sarako Urtxin-



txak' eskubaloizelaia neska taldea arras pozik dago. Denetarat 200.000 liberen gastua da: 120.000 libera herriarengain eta 80.000 libera estatuen gain (gazteen eta kirolen ministeritzak).

Obrak azilean hastekoak dira eta 'Sarako Urtxintxak' taldeak urtarileko bere lehen partida jokatu behar luke zuzenbidean zelai berrian.

Orroitz araz dezagun talde hori 32 neskatxek osatzen dutela, entrenatzaileak Bruno Sarrosqui eta Christian Rodriguez direlarik.

Bertzalde, hogeitamar bat haur dabilta ikasten Lagoutte jauna entrenatzailearekin.



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562
IRURITA - BAZTAN

SUKALDE ETA BAINU MOBLEAK

Egoki-aren banatzaile
baimendua



HERRIKO ETXETIKO EDANTEGIA

*Michel eta Keltien
Guzendutia*

Tfnoa: 59 54 25 19
64310 SARA



BAZTAN FUNERARIA

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
• TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 ELIZONDO
Tfnoak: 580924-580814-580373

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 580313
ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 60

Ura eta argi indarra garestituko dira

Urdazubi eta Zugarramurdiko lezeen arteko bidaxkaren proiektua adjudikatu da

ALIZIA OLAIZOLA

Ur-horniduraren udal zerbitzuak tarifak errebisatuko ditu, azkeneko urteotan egin gabe baitaude. Elektrizitate zerbitzuarenak, berriz, pezetaren debaluazioa dela eta, erabaki bera hartu du. Tarifa berriak onartu zituen udalak azken plenoan: Uren zerbitzua kontadorea martxan paratu arte 8.000 pezeta familia eta urte bakoitzeko. Elektrizitatea, aurten 14 pezeta kilowatio bakoitzeko gehi IVA. Datorren urtean 15 pezeta.

□ **Urdazubi** eta Zugarramurdi lezeen arteko turismo bidaxkaren proiektua



Laborariak iratze lanak finitzen ari dituzte sasoinak agintzwn duen bezala

Francisco Javier Chocarro eta Maria Urmeneta arkitetoek egingen dute. Bi udalen artean erdibana ordainduko da.

□ **Eskola** eta **mediku kontsultan** garbiketa zerbitzua subastara atera da urteko 333.000 pezetan.

□ **Azken ttipi-ttapan**

aipatu ginuen Miguel Sagastibeltza eta Zelestina Gaztañagak 62 urte ezkonduz zeramazkitela eta ez direla omenduak izan Arkupeak elkarteak ez zituelako jakin hauen datuak. Ez da hala, Arkupeak jakin zuen datuak baino bikote hau ez zen joan. Barkatu okerkuntza honengatik.

□ **Dantxarinean** elkarjo zuten urriaren 15ean 26 urteko britainiar gazte batek 'Kawasaki' moto batean joaki zenean eta 68 urteko gizon frantses batek 'Renault 19' kotxean joaki zelarik. Britainia Haundiko mutila berehala hil zen.

ZUGARRAMURDI

German Arburua intsumisoa azaroaren 9an epaituko dute

Herriko talde bat ganen da animoak ematera

KORO ETA MARGARI

Ailegatu zaigu herrira soldaduskaren arazoa. German Arburuak bere egunean intsumiso egitea deliberatu zuen, ez zegoelako ados ez soldaduskarekin, ezta Konzientzi objezioarekin ere. Orain, azaroaren 9an Iruñean epaiketa du eta bertze epaiketak ikusiz, ez du batega gauza onik espero. Egun horretan animo pitta eman nahiean herriko talde batek lagunduko du.

Aupa German!



German Arburuari nolazpait animo pitta emateko herriko talde bat ganen da Iruñerat Argazkia: ARTXIBOA

Bertze basurdea

Nabari da Zugarramurdi mendi-mendian dagoela. Duela aste batzuk lurretan kalteak egin zituztelako, basurde ehizi baten berri eman ginuen. Dirudienez afera ez zen hor bukatu eta oraindik ehiztariak hor barna ibilki dira zalaparta hutsen, bertze bat badagoe-lakoz. Arras kontent egonen direnak seguraski Ben-tetako aldeko zerri urdamak izanen dira.

EZKONTZAK

Txomin Mihura Arsuaga eta **Lea Vignaud Inda**, Urdazubi eta Azkaingoa, urriaren 9an.

Angel Bertiz Subizar eta **Enma Ayuso Aparicio**, Elizondo eta Urdazubikoa, urriaren 9an.

Daniel Halty Dainziart eta **Ana Mari Agerralde Nemours**, Urdazubi eta Zugarramurdikoa, urriaren 16an.

Bernardino Legasa Apeztegia eta **Maite Taberna Iturria**, Lesaka eta Igantzikoa, urriaren 12an.

Esther Mentaberri Bergara eta **Xabier Elzaurdia Pikabea**, Zugarramurdi eta Berakoa, urriaren 9an.

Juan Jose Goizueta Perurena eta **Yolanda Alustiza Otermin**, Goizue-ta eta Aresokoa, abuztuaren 6an.

Manuel Artola Arraiago eta **Paloma Soria Granjel**, Areso eta Donostiakoa, irailaren 18an.

Juan Bengoetxea Ibarrola eta **Sagrario Azkarraga Iribarren**, Arizkun eta Azpilkuetakoa, urriaren 2an.

Lorenzo Maritorena Iturralde eta **Juana M^a Etxenike Bikondoa**, Berroeta eta Iruritikoa, irailaren 16an.

Fco. Javier Vegas Rico eta **Itziar Maisterrena Ugalde**, Lizarra eta Amaiurkoa, urriaren 23an.

Jose Francisco Mayora Goñi eta **M^a Isabel Iribarren Mendiberri**, Lekarozkoak, urriaren 23an.

Jose Manuel Irazoki Gaintza eta **Ageda Goienetxe Iparragirre**, Etxalarkoak, irailaren 18an.

Manuel Cañamares Aldaregia eta **Ana M. Ibarra Elizagoien**, Arostegi eta Etxalarkoa, urriaren 2an.

JAIO TZAK

Iñaki Tomasena Losada, Etxalarkoa, irailaren 28an.

Josu Joseba Sanjurjo Alzuri, Lesakakoa, urriaren 21ean.

Aitor Eizagirre Burlada, Berakoa, urriaren 7an.

M^a Esperanza Irigoien Matxiarena, Berakoa, urriaren 14ean.

Unai Sapuppo Alegria, Doneztebekoa, urriaren 18an.

Mikel Olano Otxotorena, Leitzakoa, urriaren 14ean.

Unai Sagaseta Barangoan, Donamariakoa, urriaren 15ean.

Julen Taberna Iribarren, Igantzikoa, urriaren 15ean.

HERIOTZAK

Francisco Barrenetxe Zelaieta, Berroetakoa, urriaren 23an, 76 urte.

Antoine Zunda, Sarakoa, urriaren 12an, 73 urte.

Pilar Jauregi Telletxea, Berakoa, urriaren 27an, 81 urte.

Bonifacia Irazoki Dorronsoro, Berakoa, urriaren 27an, 86 urte.

M^a Dolores Silos de Yerro, Doneztebekoa, urriaren 5ean, 70 urte.

Jose M^a Ariztegi Juanena, Urrotzkoka, urriaren 11an, 83 urte.



IRURITA

PISUAK SALGAI APOTE Karrikan

Pisuak 1, 2 eta 3 logeekin, egongela, 1 edo 2 bainugela, sukaldea, despensa eta trasteroa. Gaztain egurrean egindako tarima. Gainontzeko zurak haritz egurrean. Portala eta eskailerak marmolean eginak eta harritzko arkupea.

Informazioa: ☎ 11 09 51
edo 45 24 27 (Antonia)

gaisa

NEKAZAL PROIEKTUAK

- Ikuiluak
- Almazanak
- Subentzioen informazioa

Deitu konpromisorik gabe

☎ 45 16 83

☎ 58 04 57

GASOLEOA MERKEAGO EROSTEKO TXARTELA



ZURE ZERBITZURA INDAR HAUNDIAGOAZ

Caja Ruralak Gasoleoa Merkeago erosteko txartela eskaintzen dizu orain, legearen betebeharrak egokituz eta abantaila ugariarekin:

KOMODIDADE HAUNDIAGOAZ, ez baituzu ibili beharko txake taloitegiarekin.

SEGURTASUN HAUNDIAGOAZ, galduko balitzaizu, txartela zuk bakarrik erabiltzeko baita.

ERRAZTASUN HAUNDIAGOAZ, txartela berez erabiltzeko praktikoa, moderno eta errazgoa baita.

EFIKAZIA HAUNDIAGOAZ, gastuak automatikoki Caja Ruralean duzun kontuan sartuko baitira, zuretzako molestiarik gabe, eta gainera gastuen berri emanen dizugu puntualki.

ZERBITZU HAUNDIAGOAZ, txartela traktorearendako ez ezik kalifikazioarako ere erabiltzen ahal duzulako.

Eskazazu gure bulegoetatik edozeinetan



CAJA RURAL DE NAVARRA

Astoa desagertzen ari da gure herrietatik baserri tradizionalarekin batera

*Gaur egun ez da
batere erraza astorik
ikustea gure
baserrietan.*

*Duela 30 urte,
oraindik ere, ba omen
zegoen asto dextente
Hego Euskal
Herrian.*

*Añamendiren
enziklopedian
aipatzen denez
25.014 asto zeuden
zentsaturik lau
probintzietan 1963ko
urte bukaeran.*

*Momentu honetan
zenbat dauden
jakitea, bertzalde, ez
da batere erraza.*

*Nafarroako
Gobernuak, adibidez,
ez ditu datu horiek
biltzen lehentasuneko
afera ez delako.*

*Izatekotan, zaltabere
guzien kopuruak
multzo berean biltzen
ditu, asto, mando,
zaldi, pottoka
etabarren aparteko
kontaketa egin gabe.*



Leku menditsu hauetako baserri lanak egiteko funtsezko abereak izanak diraberriki arte astoak. Leku zelaiagoetan animali indartsuago eta haundiagoak na-

hiago zuten, bistan denez ez baitzuten hemen bezala beren lanean bidaxkatan barna ibili behar.

Dena dela, baserri munduaren gainberakadak batetik eta teknika eta teknologi berrien agerpenak bertzetik, as-

toaren irudia ia-ia desagertarazi duten gure herrietatik, ez baitu jada lehen zuen funtzioa betetzen.

Halere, azienda ferietan ikusten dira oraindik ere bakar batzuk. Iruñako San Fermin ferietan, errate bate-

Manuel Irazoki, Lesakako Goiko Atxulenbordakoa:

«Lesakan bi asto daude eta biak hogeitamar urtetik goitikoak»



► Lesakako zenbat baserri-tan ote dago oraindik astoren bat?

► Nik dakitela bakarrik bi asto daude eta biak ere hogeitamar urtetik goitikoak; bat Beheko Atxulenbordan eta bertzea

gurean. Beretenorean ez genuen gidatzeko

karnetarik ateri eta traktore-rik manejatzen ere ez dugu ikasi eta adin honetan ia, astoarekin segitu beharko dugu

moldatzen.

► Lan aunitz egitea tokatzen zaie? Zer lanetarako erabiltzen duzue?

► Ez pentsa... ez dute lan soberarik egiten gaur egun. Gu jubilatua gauda eta behi

«Gu hilko garenean akabo, ez da astorik geldituko Lesakan»


bat bertzerik ez dugu izaten, eta baserriko lan pixar hoiek aisa egiten ditu. Batzutan karruari lotua ere ibiltzen

dugu, baina bertzenaz, normalean, astean behin xal-matu eta mandatuak garraitzea izaten du lana.

Gero, urrun xamar ere bizi garenez, bi baserriak elkarrekin etortzen gara herrira, mandatuak egin bitartean elkarren ondoan lotuak utzi eta gero buelta baserrira

► Orduan, Lesakako azkeneko astoak ditugu hauek seguraski?


► Bai, bai, hori seguro! Gu hilko garenean akabo, ez da astorik geldituko Lesakan.



rako, asto pila saltzen omen da, Valencia aldetik ekarri eta Frantzia aldera eramateko. Bertzalde, berriki arte ezaguna da Zumarragako ferietan astokumeak erosten zirela asto-jateak egiteko. Probatu dutenek diote-

nez, «oso goxua omen da, zaldi haragia baino hobea».

Testua: Joxemanuel IRIGOIEN
Argazkiak: Karnele TOLOSA



Marisol Taberna, Berako Lainope Ingurugiro taldeko bozeramalea:

«Itoizko aferaren inguruan, hauxe izan daiteke josi edo urratu egiteko tenorea!»

Berako Lainope taldea dugu eskualdean ingurugiroaz arduratzen den antolatutako talde bakarra.

Marisol Taberna bozeramalearekin solasalditxo bat izan dugu, orain arte egindako lanen eta hemendik aintzineratu zituzten proiektuen berri jakiteko. Aipamen berezia egin digu Itoizko urtegi eta ubidearen aferaz, eta proiektu hauen aurka larunbat honetan Iruñan egingen den manifestazioaz.



ttipi-ttapa. Noiz eta zer egiteko asmoz sortu zenuen 'Lainope' taldea?

Lainope. Sortu berria da gure taldea; joan den udaberri aldera hasi bait ginen ingurugiroa gehiago ez kaltetzeko moduko zenbait ekintza burutzen.

ttipi-ttapa. Zein dira keza sortzen dizueten gaiak eskualde honetan?

Lainope. Mendietako pistetan barna moto edo 4x4 gisako autoak noiznahi

ikustea ikaragarritzko tarraitak eginez eta bazterrak hondatuz; lantegietatik zaborrak isurtzea Bidasoarat edo erreka eta mendi bazterretan zikinak botatzearen ondorioz sortzen diren arratoiak ikustea... Kezkak, gure iduriz denon artean konpontzeko modukoak dira.

ttipi-ttapa. Orain arte zertan aritu zarete lanean?

Lainope. Beira bilketaren gainean, beira-ontzien era-

bilpena bultzatzeko kokalekuen berri emanez hasi ginen. Jendea jakin arazi nahi diogu epez kanpo edo soberan ditugun botikak, erositako tokira eramaten ahal direla eta paper bilketaren kanpaina antolatzen hasi ginen, baina jakin genuen duela lau zapaborts hilabete Bortzirietako Zabor Mankomunitateak herrietan papera biltzeko toki bat egokitzeke erabakia hartu zuela eta zain gaude, luzatzen bada

abisuren bat eman beharko zaie...

ttipi-ttapa. Zein eginkizun dituzue eskuarrean azken aldi honetan?

Lainope. Egunero eskuarrean erabiltzen ditugun hondakin kaltegarriei buruzko informazioa zabaltzea, paper bilketarena martxan paratzea eta Itoizko urtegiaren aferaren oihartzuna eskualde honetako zoko guzietaraino hedatzea.

ttipi-ttapa. Zertaz hartu

Itoiz: Proiektuen zenbait ezaugarri



URTEGIA

- ◆ Agoitz eta Oroz-Betelu bitartean kokatu ko litzateke urtegia.
- ◆ Irati bailarako 15 km eta Urrobi bailarako 7 km urpean geldituko lirateke.
- ◆ 9 herri eta 1.100 Ha. hartuko luke ur azpian.
- ◆ Hegaztien babesleku pare bati eragingo lieke
- ◆ 16.400 milioi pezetako gastua, bide berrien gastua eta lurren jabeek ordaindutakoa kontatu gabetenikan.

UBIDEA

- ◆ 181 km. izanen litzuzke eta 2 ataletan eginen litzateke.
- ◆ Gastua: 100.000 milioi pezeta.
- ◆ Lehen 3 km.ak egiteko proiektu zehatza dago bakar bakarrik eta gastua horren %40a Nafarroako Gobernuak ordainduko luke
- ◆ Ubidearen eraikuntzak 6 tunel (13'5 km), 8 sifon (28'5 km), 2 akuedukto eta 4 erregulazio baltsa beharko litzuzke.
- ◆ Ubideak 3 aldiz gurutzuko luke autopista, 16 aldiz errepeideak...

duzue mezulari lan hori?

Lainope. Alde batetik, Nafarroan egiten ari diren obretatik kalte ekologiko haundien sor dezakena delakoz eta bertetik, ohartu garelakoz gure inguruko jendeak ez duela sobera argi zen den Itoiz aldean gertatzen ari dena.

ttipi-ttapa. Zuen iduriz, zertaz dugu ezjakintasun hori?

Lainope. Urrutiko kontuak direla iduritzen zaigulakoz "hango urak ez gaituela itoko". Egia da, 8 urte luze hauetan, komunikabideetan ez dutela hitz haundirik aipatu, berriki Greenpeace eta Codakoe proiektu honen kontrako salaketa adierazi duten arte.

ttipi-ttapa. Zer arrazoi dituzue Itoizko proiektuaren kontra egoteko?

Lainope. Arrazoi nagusia, urtegian bildutako ura zertarako probextuko den garbi ez jakitea; horretaz gain 9 herri eta 1.100 Ha. urpean gelditzea eta zenbait natur

erreserbei erasotzea. Zuzenbidez urtegiaren eta ubidearen obrak loturik egon beharko lukete baina iduri du estatuaren helburua urtegia egitearena dela eta ez Nafarroako dermioak ureztatzea.

ttipi-ttapa. Beraz, ez dago garbi ur hori Nafarroan probextu ahal izan denik?

Lainope. Ez, zeren eta Nafarroan probextu ahal izateko, 181 kilometrotako ubidea egin beharko litzateke. Gaur egun, ubide hori egiteko modurako prestatuak 3 kilometro bertzerik ez daude.

ttipi-ttapa. Nola ari da jokatzeko Nafarroako Gobernua?

Lainope. Nafarroako Gobernua ixiltasunaz baliatuz, Estatuako Administrazioa obrekin segitzea baimentzen ari da, bere arduretatik ihes eginez eta eritzi publikoari errealtatea gorde nahirik.

ttipi-ttapa. Eskualdeko jendeak zer egiten ahal du?

Lainope. Hagitz une era-



"Larunbat honetan Iruñan eginen den manifestazioaren gonbitea luzatu nahi diogu jendeari"
Arg.: KARMELE

bakiorra denez gero, jendearen erantzunak eragin dezake urtegiaren obrak geldiarazteko; horrexegatik azaroaren 6an eginen den manifestaziora hurbiltzeko gonbitea luzatu nahi diogu

jendeari: hauxe izan bait daiteke josi edo urratu egiteko tenorea!

Lainope taldearekin ari-tu nahi izanez gero asteazkenetan biltzen garelako oroiterrazi nahi genuke...

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU 63 11 88 ☎

▼ Etxebizitzak

• **Elizondon** pisua salgai, amueblatua, garage eta terrazakin. ☎ 580809.

• **Candanchun** apartamendua salgai—6 milioitan—amueblatua, garage eta trasteroarekin. ☎ 943-464360 (gaueko 8-10etara).

• **Pisu** berria eta garagea salgai. Hiru gela, bi bainu, komedorea eta terraza. ☎ 630407.

• **Sunbillako** baserri bat bere terreno eta granjarekin alokatzen da. ☎ 637306 eta 450101.

• **ELizondon** edo **Ma-lerrekan** logela edo pisu bat konpartitzeko behar dut. ☎ 121591 (arratsetan, Pili).

▼ Lana

• **Sukalde** laguntzaile bat (titulatua) eskeintzen da. ☎ 610798.

• **Lesakan** lan eginen nuke goizez. ☎ 637885 (Carmen).

• **Neska** batek haurrak zaintzen edo etxeko lanetan lan eginen luke. ☎ 637396.

▼ Salerosketak

• **Bideo-kamara** Sony salgai prezio onean (35.590 pzta). Guti erabilia. ☎ 580256 (Kepa).

• Klase guztietako **ka-priuak** salgai. ☎ 943-629200 (lan orduetan).

• **Renault 12** xuria, egoera onean dagoena, salgai prezio onean. ☎ 580812.

• **Su-egurrezko** sukalde kalefaktorea Hergon markakoa eta akumuladorea salgai. ☎ 510362.

• Zero Sette markako **trikitixa** salgai. Guttu erabilia. ☎ 634136 (8etatik aintzina).

• 10 urteko **mando** ona salgai. ☎ 634167.

• 6 urteko **behia** eta egun guttitako **aretzea** salgai Lesakan. Behia buztarrian ikasia da. Josetxo (pilota plazaren ondoan).

• **Intxaur-landareak** salgai, 3, 4 eta 5 urtekoak. ☎ 510227.

• **Renault 18** Diesela salgai, egoera onean. NA-7365-L. ☎ 510196.

• Propanozko edo egurrezko kalefakzioarako **9 erradiadore** 50.000 pztan salgai. Oraindik estreinatu gabeak. ☎ 581212.

• Motoa salgai, Gas-gas Contact 250 93koa. Matrikulatua. ☎ 630575.

▼ Denetarik

• **Artzai-zakurkumeak** nahi baduzu. ☎ 451661.

• Gizonezkoen **erlojua** galdu da. ☎ 630104.

• **Pastor Aleman** zakur ar bat daukat, 7 urtekoa, oso bizkorra eta indartsua. Bere antzeko zakur eme batekin gurutzatu nahi dut. Hau egitegatik ez dut ordainketarik nahi, zakurkume bat edo bi baizik. ☎ 943-611775 (Martin Gortari).

• **Bideo-erreportai** eta montaiak prezio interesgarrian. ☎ 943692352 (Pello).

• **Neska** bat behar da pisu bat osatzeko Burlatan. Oso ekonomikoa. ☎ 453174.

• **Doneztebeko** argazkiak nahi nituzke, duela 30

edo 40 urtekoak liburu batean argitaratzeko. Norbait baldin badu, eraman ditzala Zaldua argazkidendarara.

▼ Harremanak

• **Leitzako** Aimar Fernandezeri: ezetz asmatu nor den pertsona, animalia eta gauza guzien artean gehien maite duguna? Zeu kuttuna!!! Zorionak zure 9. urtebetetzean. Betikoak.

• **Sunbillako** Edurne Urrozi, beti bezain katxondak eta alai jarrai dezan. Zure bi admiradora. A. E.

• **Olako** Ainhoarentzat: zorionak zure urtebetetzeagatik. Kontuz patxaranakin, ongi pasa eta musu bero bat zure kuadrillan partez.

• **Donamariako** Idoiri zorionak zure urtebetetzeagatik. Txanpain botila freskatzen jarri. Muxu haundi bat. Zure kuadrilla.

• **Zorionak** Aimar: badakit urrikitzen zaudela urriaren 29a ailegatzeko. Bederatzigarren urtebetetzea inportantea da. Alain.



**GIZONEZKOEN
MODA**

muñeca
de trapo

**EMAKUMEZKOEN
MODA**

BIAK, IRUNGOKO LUIS MARIANON



BORTZIRI

ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa

* Bakarkako, kolektibo edota satelite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, behea — BERA Tfnoa: 63 10 91

**Zure hipoteka zaharrari
ordezkoa ailegatu zaio.**


%9,75ko interesarekin

Pasa zaitez gure
bulegoetatik

- BERA •
- DONEZTEBE •
- LEITZA •
- LESAKA •




CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



ARGIA

EZ GALDU AUKERA HAU!



Datozen asteetan ARGIAren harpidedun egiten bazara
1994ko egutegia dohainik jasoko duzu zure etxean.

NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZENA _____ 1. DEITURA _____
2. DEITURA _____ HELBIDEA _____
TFNOA _____ HERRIA _____
KODE POSTALA _____ HERRIALDEA _____
BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____
SUKURTS. HELBIDEA _____ SUKURTS. ZKA. _____
KONTUAREN ZENBAKIA _____

ARGIA: Iratxeko Monastegia, 70 - 3 ezk. 31011 IRUÑEA

HARPIDETZA SARIAK (BEZ barne)

Hego Euskal Herria
10.900 pzta
Ipar Euskal Herria
685 libera
Espainia 10.900 pzta
Beste Atzerriak
114.250 pzta
Airez 22.500 pzta

BENTA - BERRI

Larruaren Etxea



▼ Kazadorak, jakak,
galtzak, gonak,
berokiak, boltso
eta eranskinak



Egunero irekia, goizeko
9etatik arratsaleko 7etara.



▼ Moda saltzen
dugu prezio eta
kalitate
hoberenetan

IBARDIN, Tfnoa: 630 708 - **BERA**

ALMACENES ETXANIZ, S.A.

Lesakako Iturria anaiak



AZAROAN:

Bañera nahiz
dutxako manparatan
eskeintza bereziak
(kolokatzea gure
kontura)

*Irunen zure zerbitzura edozein berritze
edo erreforma zure bainugelarako,
marka hoberenekin, prezio egokienetan*

IRUNen, Juan Arana, 3
Tfnoa eta faxa:
(943) 611767